

HAUTAGAITZA FORMULARIOA

2018ko azaroan, Euskal Hirigune Elkargoak (EHE) aho batez bozkatu zuen kultura eskumena bere gain hartzearen alde. Lurraldeko kultura proiektu bat garatzeko borondatea adierazi zuen orduan, hainbat ardatzen inguruan: Arte-irakaskuntza, Sorkuntza artistikoari laguntzea, Arte eta kultur heziketa – Kultura bitartekaritza eta Irakurraldi publikoa.

Ikuskizun Biziaren Zerbitzua da Euskal Hirigune Elkargoaren kultura tresna. Haren egitekoa da sorkuntza artistikoari laguntzea, karrikako arteen, publiko gaztearen eta euskarazko sorkuntzaren arloetan. Gainera, arlo horiek Ipar Euskal Herriko lurraldean garatzearen alde lan egiten du.

Proiektua molde ibiltarian gauzatzen da, kultur denboraldien bidez. Denboraldi bakoitzean, hogeita bat sorkuntza egonaldi eta hamarnaka hitzordu publiko antolatzen dira, **Harri Xuri gelan** eta **dekoratuak eraikitze atelerian** (Luhuso) eta **EHEren lurraldeko anitz lekutan** (erabilera anitzeko aretoetan, establezimendu berezietan eta abar).

Oroz gainera, artisten, obren eta herritarren arteko elkargune dira. Eta arte, jende eta gizarte topaketa horiek lan taldeak plantan ezarri bitartekaritza proiektuen bidez osatzen dira.

HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Honako proiektuak lehenetsiko dira:

- Eremu publikoan emanen diren proiektuak (baserrialdean, naturagunean, hiri-eremuan...)
- Herritarrekin bitartekaritza saioak antolatzea edo lan espezifikoak egitea pentsatzen duten lurralde-proiektuak
- Gazteei zuzendu proiektuak
- Euskarazko proiektuak

EGONALDIA EGITEKO EHE-K ESKAINI ERRAZTASUNAK

- Koprodukzioarako ekarpenak
- Publiko bereziarendako aurrerapenak edota lan denborako bisitak antolatzea
- Ostatu ematea eta apairuak bere gain hartzea

Egonaldi eskaera baten egiteko, igor dokumentu hauek posta elektronikoz (mar.etccherry@communaute-paysbasque.fr) "EGONALDIRAKO HAUTAGAITZA" GAIArekin:

- ☐ **Sorkuntzaren aurkezpen dossier bat:**
 - konpainiaren biografia,
 - proiektu artistikoa aurkezten duen xede-oharra,
 - produkzio-egutegia,
 - engeiatutako partaideak (koprodukzioak, aurre erosketak, etab.) eta bidean diren eskariak,
 - **egin nahi egonaldiaren ETA sorkuntzaren behin-behineko aurrekontua**
- ☐ **Hautagaitza formularioa, behar bezala beterik eta osaturik,**
- ☐ **Halabeharrez, Interneteko esteka baliagarri bat edo gehiago, zure konpainiaren lanaren ezagutzeko (bideoak, datak...)**

Oharra: Dossier osoak baizik ez dira aztertuko.

Ikuskizun Biziaren Zerbitzua – Harri Xuri kultur gela – 64250 Luhuso – Tel: 0033 5 59 93 65 93 – mar.etccherry@communaute-paysbasque.fr

HAUTAGAITZA FORMULARIOA

Konpainia:

Hiria / Herrialdea edo Eskualdea:

Izenburua (behin-behinekoa bada ere):

.....

Arloa:

Egonaldiaren garai eta iraupena(k) (hobespenaren arabera):

.....

.....

.....

Informazio administratiboak:

Egituraren izena:

Helbidea:

Telefono zenbakia:

E-posta:

SIRET zenbakia:

Ikuskizunetarako enpresaburu-lizentziaren zenbakiak:

APE kodea:

Arduradunaren izen-deiturak eta funtzioa:

Proiektuaren edo konpainiaren lan taldea:

Sorkuntzari buruzko argibideak

Kultur ekintzak, tailerrak, sentsibilizaziorako ekintzak: **bai** ☐ **ez** ☐

Baiezkoan, zehaztu (jardueraren deskripzio-testua, lehenago landu beharreko gaien zerrenda, publikoaren adina, jarduera bakoitzeko gehienezko pertsona kopurua, etab.)

HAUTAGAITZA FORMULARIOA

Eskatutako egonaldiaren egiteko moldeak

Egonaldi mota: *(lauki bat baino gehiago marka daiteke)*

- ☐ laborategia/ikerketa ☐ eraikuntza ☐ jokoa ☐ entsegua ☐ azken hunkiak...
☐ besterik (zehaztu)

Egonaldian izanen den pertsona kopurua (zehaztu bakoitzaren funtzioa):

Honako hauek egiteko beharra duzu edo aukera izan nahi duzu:

- ☐ Bisitak lan denboran (publiko bereziarentzat) ☐ Aurrerapena (jende guzientzat)
☐ « Crash test » / Aitzin agerraldia
☐ Topaketak herritarrekin / Topaketak lurraldeko adituekin / Bilketa (Baiezkoan, zehaztu)
☐ Besterik (zehaztu)

Laguntzarik behar duzu?

Ikuskizun Biziaren Zerbitzuak honako laguntza hauek ematen ahal dizkizu:

- Administratiboa (aurrekontua, partaideen bilaketa, dosierrak, hedapen-sarea...). Solastatzea, baliabideak dituzten pertsonekin harremanetan jartzea, egonaldi denboran biltzeko memento baten finkatzea (ahal den neurrian eta egutegien bateragarritasunaren arabera).
- Artistikoa: dramaturgia, taula zuzendaritza, aktoreen zuzendaritza... Ikuskizun Biziaren Zerbitzuak harremanetan ezar zaitzake lurraldeko artistekin (batez ere Le Petit Théâtre de Pain eta Axut konpainiekin edo beste pertsona batzuekin), zure konpainiaren behar eta nahien arabera. Lankidetzat truke soil bat ala interakzio handiagoa izan daiteke, aitzinetik adostutakoaren eta egutegien bateragarritasunaren arabera.
- Teknikoa: eszenografia aholkuak, eraikuntza, argiak eta soinua... Ikuskizun Biziaren Zerbitzuak harremanetan ezar zaitzake lurraldeko teknikariek (batez ere Le Petit Théâtre de Pain konpainiako kideekin edo beste pertsona batzuekin), zure konpainiaren behar eta nahien arabera. Lankidetzat truke soil bat ala interakzio handiagoa izan daiteke, aitzinetik adostutakoaren eta egutegien bateragarritasunaren arabera.

Teknika-zehaztapenak

Egonaldian nahi d(ir)en lan espazio mota(k) (zehaztu: erabilera anitzeko gela, gela tresnatua, herriko gela, ikastetxea edo establezimendu berezitua, baserrialdea, naturagunea, hiri-eremua, etab.):

Zehaztu teknika mailako zure beharrak:

- **Espazioa(k)** (luzera, zabalera eta altuera, zintzilikatzeko guneak, lastak, zola mota, etab.):
- **Materiala;** soinua, argiak, gela iluna, bideoa, dekoratuak, etab. (Dekoraturik baduzu, zehaztu neurriak):
- **Langile teknikoak** (muntaketa/desmuntaketa, etab.):

OHAR GARRANTZITSUA:

NAHITAEZKOA da konpainia erabat AUTONOMOA izatea garraioari dagokionez. Euskal Hirigune Elkargoak kasik 100 km egiten ditu mendebaldetik ekialdera, eta 80 km iparraldetik hegoaldera. Kostaldea urbanizatua da, eta barnealdean baserri giro da. Joan-etorrien neurri-unitatea denboran neurtzen da, ez kilometrotan! Ezinbestekoa da beraz konpainia beregaina izatea joan-etorriak egiteko.